

## ERAKUSKETAKO DOSSIERRA

***"Loreak asmatzen: Naturazale Europarrak Euskal Herrian.  
Petit de Meurville – Pietro Bubani"***



<http://www.loreakasmatzen.net>

## AURKIBIDEA

---

aurkezpena .....	3
edukiak eta egitura .....	4
dokumentuak eta beharrezko baliabideak .....	5
publikoa eta erabilera .....	7
fitxa teknikoa .....	8

## AURKEZPENA

---

XIX.mendeko Euskal Herriaz gozatzeko erreferentzia zentro den **Zumalakarregi Museoak**, CristinaEnea Fundazioarekin eta Bolognako Museo Civico del Risorgimentorekin elkarlanean, ondorengo erakusketa aurkezten du: **“Loreak asmatzen: Naturzale europarrak Euskal Herrian. Petit de Meurville – Pietro Bubani”**.

XIX. mende erdian Euskal Herrian egokitu ziren bi landare zaleen lanetan oinarritzen da. Pietro Bubani, italiar botanikoa, bizitza Piriniotako landareak jaso eta aztertzen eman zuena, gurean 1841 eta 1879 artean zenbait ibilbide egin zituen, beti ere bere herbarioarentzat landareak jasotzeko helburuz. Eta Didier Petit de Meurville, 1857.etik aurrera Frantziako kontsula Donostian, bere zaletasunen artean pintura eta landareekiko maitasuna elkartu zituen, zeinen emaitza Gipuzkoako florari eskainitako hiru album izan ziren.

Bi pertsonaiak denbora eta espazioan batera egokitzeak eta bien landareekiko maitasuna uztartzeak erakusketa hau antolatze bidea eman digu. Bertan gure XIX. mendeko flora zientzia eta artearen aldetik aztertze bidea izan dugu, bidebatez garai hartako gure herriaren egoera aipatu eta Pirinioen inguruan sortutako , bai ikertze zein gozatzeko interesaren aipua ere egin dugu.

## EDUKIAK eta EGITURA

---

Erakusketa bitan dago banatua. Lehenengo zatian bi pertsonaien biografiak aurkezten ditugu, bakoitza bere kontestu historikoan, Bubanik Euskal Herrian zehar egindako bidaiak eta XIX.mendean zehar egindako Pirineoen aurkikuntzako zenbait puntu. Bigarrenean aldiz, botanika lantzen dugu gehienbat, Petit de Meurvillek gipuzkoako florari egindako irudiak Bubaniren herbarioarekin alderatuz. Honez gainera, azken zati honetan zenbait landareren inguruko informazioa eskaintzen dugu, oinarritzat beraien bizilekua edota urteetan zehar eman zaizkien erabilpenak hartuta.

- Erakusketaren aurkezpena
- Biografiak:
  - Pietro Bubani
  - Petit de Meurville.
- Pirinioak
- Bubaniren Euskal Herriari buruzko iritziak
- Bubaniren txangoak Euskal Herrian zehar
- Testuinguru historikoa. Euskal Herria-Emilia-Romagna
- Flora
  - Aukeratutako landareak deskribatzen dituzten fitxak.
  - Erabilpena praktikoa (gastronomia, kosmetika, mitologia edo senda belarrak)
  - Bizilekuaren arabera bilduta.

### Proiektzioa

Petit de Meurvillek marraztutako landareen erreproduktzioak "Flora de Gipuzkoa"  
-ko hiru albumetan sakabanatuta.

## DOKUMENTUAK eta BEHARREZKO BALIABIDEAK

---

· Erakusketako edukiez osatutako **Webgunea**.

<http://www.loreakasmutzen.net>

## PANELEN ADIBIDEAK



## PUBLIKOA eta ERABILERA.

---

Mota guztietako erabiltzaileei zuzendutako erakusketa da hau. Horien artean: kultur etxeak, irakaskuntzarekin lotura duten adituak, elkarte desberdinetako kide diren adituak, familiak edota banakako bisitariak.

Bereziki gomendagarria izan daiteke botanikan interesa duten pertsona fisiko edota taldeentzako, ikuspegi artistiko zein zientifikotik. Baita ere XIX.mendean interesa dutenentzat. Azkenik, erakargarria izan daiteke XIX.mendean Pirinioetan egindako aurkikuntza ikertzen dabiltzanentzat, ikuspegi artistiko zein literariotik begiratuta.

## FITXA TEKNIKOA

---

Erakusketak ondorengo euskarriez dago osatua:

- 200 x 210 cm neurria duten telazko 12 panel, aluminiozko kaxoi argidun baten gainean muntatuta. Hauek espazio batera edo bestera egokitzeko arazorik ez dago printzipioz, hala ere, florari dagokion zatia lau piezaz osatutako bi gurutze osatuz aurkeztea gomendatzen da.
- Aluminiozko bastidore baten gainean muntatutako telazko panel 1 (200 cm + 200 cm) x 240 cm.
- Aluminiozko bastidore baten gainean muntatutako telazko panel 1 (150 cm + 200 cm).
- Aurrez aukeratutako irudiak aurkeztuko dituen DVD, musikaz lagunduta. Erreprodukzioa buklean.
- 3 puff

### **Aukerakoa**

- 15 X 10 cm neurriko txartela.